

HASI DA EUSKADIKO ZAINKETA ARINGARRIEN PLANA HEDATZEN OSAKIDETZAN, ETA LEHENENGO UNITATEA EZKERRALDEA- ENKARTERRI-CRUCES ETA BARAKALDO- SESTAO ESletan JARRI DA ABIAN

Urkullu Lehendakariak gaur goizean bisitatu duen unitate berrian 15 ohe prestatu dituzte zainketa aringarriak behar dituzten pazienteentzat esparru honetan ibilbide luzea duen irabazi asmorik gabeko Santurtziko San Juan de Dios Ospitalean

Gainera, arretaren ibilbide espezifikoa bat ezarri da bi ESletan erabilgarri dauden baliabide guztiekin bat egin eta paziente helduei nahiz pediatrikoei maila guztietan arreta osoa, homogenea eta kalitatezkoa emango zaiela ziurtatzeko

Iñigo Urkullu lehendakariak gaur goizean bisitatu du Ezkerraldea-Enkaterri-Cruces eta Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratueta Zainketa Aringarrien Unitate berria. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sustatutako 2016-2020 aldirako Euskadiko Zainketa Aringarrien Planak **Bizkaian aurreikusitako aurrerapausorik adierazgarrienetako bat da.**

Unitate berri honek guztira 15 ohe espezifikoko ditu Santurtziko San Juan de Dios Ospitalean, eta arretaren ibilbide espezifikoa bat ezarri da **zainketa aringarriak behar dituzten paziente helduei arreta integratua ziurtatzeko.** Alde horretatik, sustatuko da pazientearen autonomia erabakiak hartzeko plangintzan parte hartzearen bitartez, aurreiazko borondateen adierazpena egiteko informazio eta aholkularitzaren bitartez eta bizitzaren amaieran dauden pazienteentzako zainketa-plana eginez.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Zainketa Aringarrien Plana aurtengo urtearen erdialdean aurkeztu zen, eta ahalbidetuko du **baliabide asistentzial guztiak**, kasu honetan Ezkerraldea-Enkaterri-Cruces ESkoak nahiz Barakaldo-Sestao ESkoak (lehen mailako arretako ekipoak, zainketa aringarrien unitatea, etxeko ospitaleratze-zerbitzua eta larrialdiak) eta San Juan de Dios Ospitalekoak (SJOko zainketa aringarrien unitatea eta etxeko zainketa

aringarrien laguntza-taldea) **bateratuta izatea zainketa aringarriak asistentziaren maila guztietan eskainiko direla ziurtatzeko**. Horrekin Eusko Jaurlaritzak betetzen ditu Pertsonen Euskadiko Osasun Sistemaren dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan hartutako konpromisoak (zainketa aringarriko eskubidea) eta Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Legea.

Unitate berri hori batuko zaie Bizkaia osoari pediatriaren espezialitatean etxeko laguntza ematen dion Cruceseko Zainketa Aringarrien Unitateari, Santa Marinaran eta Gorrizen abian daudenei (Bilbo, Uribe eta Mungialdeko pazienteei ematen diete zerbitzua) eta Eibarko ospitalean abian jartzekoa den eta zainketa aringarriak behar dituzten Debabarrenako pazienteak ez ezik Durangaldeko pazienteak ere artatuko dituen unitate berriari.

Izan ere, Iñigo Urkullu lehendakariak berak gogoratu duen moduan, legealdi honetan hedatuko da Zainketa Aringarrien Plan osoa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan helduentzako eta haurrentzako ekimenak abian jarrita ospitaleetan eta etxeko zerbitzuetan. **“Planaren helburu nagusia da gaixotasun aurreratua duten pertsonen eta beren senideen bizi-kalitatea modu arrazionalen, planifikatuta eta eraginkortasunez hobetzea, zainketa aringarriak gaixoen eta beren zaintzaileen legezko eskubidea eta indibiduala izan daitezen ziurtatzeko”**.

“Zainketa Aringarrien Plan berri hau **etikatik egin da, eta ekitatearen eta pertsonen duintasunarekin hartutako konpromisoa da**. Helburua da **zainketa aringarrietako arreta hobetzea, osasun-arreta edonon ematen dela ere, eta zainketa aringarriak helduentzat nahiz paziente pediatrikoentzat aurreikusten ditu**. Aldi berean, legealdiaren hasieran hartutako konpromiso bat da, bai eta euskal osasun-sistemaren aurrerapauso handia ere **pertsonen duintasunaren eta kalitatezko osasun-arretaren mesedetan**”, Urkullu lehendakariak adierazi duenez.

Bestalde, lehendakariak gogoratu du Unitate berri hori Euskadin osasun arloko erakunde publikoen eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen artean gizartearen beharrei erantzuna emateko aspalditik abian den lankidetzaren emaitza dela, eta, alde horretatik, biziki eskertu du zainketa aringarrien esparruan San Juan de Dios Unitateko buruak, Jacinto Bátiz doktoreak, orain arte egindako lana, Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana planifikatzen ere lagundu duen aldetik.

Bátiz medikuak eskerrak eman dizkie lehendakariari eta Osasun Sailari Santurtziko San Juan de Dios Ospitalean jarritako konfiantzagatik, eta poztekoa

dela adierazi du unitate berri hau abian jartzea; izan ere, osasun-zentroko hegal oso bat hartzen du.

Bátiz medikuak azaldu du ospitale horretan aitzindariak direla zainketa aringarrietan EAEn. “Duela 23 urte, zainketa aringarrietan hasi ginenetik, gaixotasun aurreratu sendaezinak dituzten pertsonak eta haien familiak zaintzen aritu gara. Gaur egun, etxeko laguntza ere eskaintzen dugu. Era beran, gero eta jarduera handiagoa dugu alor honetako ikerketan eta berrikuntzan, eta beste profesional batzuekin ere partekatzen dugu gure ezagutza eta esperientzia, prestakuntzaren bidez”.

Era berean, komeni da aditzera ematea, Pediatrian erreferentziazkoa den Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESlaren esparruan, paziente pediatrikoen zainketa aringarrietako plan bat ere hartu dela barnean. Plan horrek haurtzaroaren eta nerabezaroaren zainketa aringarrien ezaugarri asistentzial espezifikoak hartzen ditu aintzat: familiaren eta zaintzailearen arreta, zaintzailearen prestakuntza eta doluaren arreta.

ZAINKETA ARINGARRIEN PLANAREN HELBURUAK

Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana 4 urterako da (2016-2020), eta ezartzen da epe horretan zainketa aringarrien arreta garatu eta sakondu beharko dela **6 helburu nagusitan** oinarrituta:

- 1.- Zainketa aringarriak behar dituzten eta hartarako eskubidea duten pertsonen zuzendutako **arreta-eredu homoginoa finkatzea** ESI guztietan eta arreta-maila guztietan, eta ekitate-baldintzak eskainiz arretarako sarbidean eta kalitatean.
- 2.- Gaixotasun aurreratuaren edo sendaezinaren kasuetan **arretaren kalitatea hobetzea**, pazientearen eta familiaren autonomia eta premiak errespetatuta, Historia Klinikoa erregistratutako Banakako Arreta Planaren bitartez.
- 3.- Zainketa aringarriak eskaintzeko **baliabide-eskuragarritasuna handitzea**.
- 4.- Zainketa aringarrien arloko profesionalen **prestakuntza** eta gaikuntza **hobetzea**.
- 5.- **Etengabeko hobekuntza sustatzea** zainketa aringarriak behar dituzten pazienteei arreta ematen dieten erakundeetan.
- 6.- Pediatrian, **Pediatriako Zainketa Aringarrien** inguruko lankidetzaren ezartzea.

HIRU ARRETA MAILA, KATE BAKARRA

Helburu horiek lortzeko, 2016-2020 aldirako Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana hiru arreta-mailatan oinarritzen da, eta arreta-kate bakarra osatzen dute.

Hala, **zerbitzu-eskaintza eta, jakina, kalitatezko arreta bermatuta izango dute** bizitzaren azken fasean dauden pertsonen, etxean edo egoitza-zentroan nahiz, hala badagokio, ospitalean, (unitate konbentzional batean ospitaleratu behar badira) edo zainketa aringarrien unitate espezifikoan.

1. MAILA: **ETXEA EDO EGOITZA ZENTROA**. ESI guztiek oinarritzko bi zerbitzu hauen inguruan koordinatuko dute arreta: familia-medikua eta lehen mailako arretako erizaina (unitate guztietan homogenea eta sistematikoa) eta etxeke ospitaleratzea, kasu konplexuetan eta, betiere, lehen mailako arretako zerbitzuarekin batera jardunez. Bi zerbitzuok koordinatuta jardun behar dute, alde batetik, gizarte-zerbitzuekin eta, bestetik, laguntza-zerbitzuekin (larrialdiak, osasun-aholkua, etxeke larrialdiko arreta-zerbitzua, larrialdi-zerbitzuak eta arreta psikosozialeko taldea), zainketa aringarriak behar dituzten pazienteek 24 orduz etengabeko arreta jasoko dutela bermatzeko.

2. ARRETA MAILA: **OSPITALEA**. Arreta-eredua ES-laren ezaugarrien araberakoa izango da:

-Ospitale nagusi handiek zainketa aringarrien taldeak izango dituzte, eta beren lana izango da zainketa aringarriak behar dituzten eta unitate konbentzional batean ospitaleratzea behar duten pazienteak hartzen dituzten zerbitzuei eta/edo unitateei (ospitaleko larrialdi-unitateak barne direla) laguntzea.

-Tamaina txikiagoko ospitaleetan etxeke ospitaleratze-zerbitzuak arduratuko dira zainketa aringarrien taldeek egin ohi dituzten aholkularitzako eta sail arteko jardueraz.

Bi kasuetan, aurreko arreta-mailan bezala, ES-lek antolatuko dute koordinazioa. Kasu honetan, ospitaleratutako pertsonaren ardura duten ospitale-zerbitzuen eta etxeke ospitaleratzearen eta lehen mailako arretaren ardura dutenen artekoa; eta, beharrezkoa izango balitz, baita aipatutako gizarte-zerbitzuekin eta laguntza-zerbitzuekin ere.

3. ARRETA MAILA: **ZAINKETA ARINGARRIEN UNITATEAK**, ES-letakoak edo Osakidetzako beste erakunde sanitario batzuetakoak, hala nola, kronikoen ospitaleetakoak edo zentro itunduetakoak.

Planaren testu osoa: http://www.euskadi.eus/web01-s2osa/es/contenidos/informacion/plan_cuidados_paliativos/es_def/adjuntos/Cuidados_PLAN_es.pdf

Eranskina: http://www.euskadi.eus/web01-s2osa/es/contenidos/informacion/plan_cuidados_paliativos/es_def/adjuntos/Cuidados_anexo_es.pdf